

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### OGASUN ZUZENDARITZA

#### Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren egintza administratiboak jakinaraztea

Administrazioari ez dagozkion arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezko izan da. Hortaz, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 108. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aipatutako artikulua eskatzen dituen jakinarazteko ahaleginak egin ondoren, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergadunei edo beren ordezkariari dei egiten zaie agertu daitezen eta zerrendan adierazten diren prozeduren ondoriozko administrazio egintzen jakinarazpena jaso dezaten.

Interesdunek edo beren ordezkariak gehienez 15 egun izango dituzte agertzeko, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren bulegora jo behar dute (Samaniego kalea, 14 – 3. solairua. Gasteiz), astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era, bulego horrek izapidetutako prozeduren berri eman diezaien.

Agertzeko epea igaro, eta interesduna edo bere ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2018ko maiatzaren 9a

*Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren burua*

**GONZALO LÓPEZ-HUERTA MARTÍNEZ DE ARAGÓN**

IFZ	IZENA	PROZEDURA
B01483726	ALAMEDA 2011, S.L.	Jarduketak hastearen komunikazioa
B01483726	ALAMEDA 2011, S.L.	Zehapen prozedura laburtuaren hasieraren jakinarazpena
B01469915	AUSCULTOP INGEN Y EST INFRAESTRUCTURAS SL	Jarduketak hastearen komunikazioa
B01424258	EUROEBRO INGENIERIA, S.L.	Jarduketak hastearen komunikazioa
B99435562	GENERAL SERVICES MANAGEMENT ACTIVITIES 2015, S.L.U	Jarduketak hastearen komunikazioa
B01491422	HABITARA GESTION INTEGRAL DE RESTAURACION, S.L.	Jarduketak hastearen komunikazioa
B01487925	INTERGEO INVESTMENT, S.L.	Jarduketak hastearen komunikazioa
B01438635	SARAH SERVICIOS INTEGRALES, S.L.	Jarduketak hastearen komunikazioa
B01424100	SALBISER INVERSIONES, S.L.	Jarduketak hastearen komunikazioa